



2007ko martxoaren 4a
ARGIA
10

Jose Anjel Lopetegi

«*Manga oso merke da erosteko eta ahoko zuloatik sartzen digute*»

Lope du izen artistikoa. Marrazkilari zaildua da. Haren lana, berriz, nortasun handikoa. 44 urte eta ilustrazioaren betetera da gurean. Ezaguna da, oso, haren pertsonaia, Kipe, hogeita hamar urtean *Ipurbeltzen* orrialdeetan iraun duena. Belaunaldi berriek, aldiz, *Pirata* dute ezagunago. Ezagunak haren pertsonaien formak: Flannery eta bere astakiloak, edo telebistako Txirrita eta Lazkao Txiki. Ezagunak bere lanak, ezezaguna bera. Izan ere, zeinek jartzen dio arreta tamainako lan ederren egilearen izenari?

Miel A. Elustondo

Argazkiak: Dani Blanco

Berrogeita lau urte dituzu. Sasoi betean eta, aitzitik, iraganaz jardun dezazun nahi dut, hasieran bederen...

Oso txikitan hasi nintzen marrazten. Hiru-lau urte nituela. *Mortadelo*, *Capitán Trueno* eta bestelako zenbait komiki irakurtzeko ohitura nuen. Lagunen artean ere makina bat komiki kanbiatzen genizkion batak besteari. Komiki mordoa irakurri genuela esan nahi dut. Gero, komikiak kopiazen ikusten dut neure burua. Komikia nire parean jarri, bloka hartu, eta kopiazen hasi. Hurrena, kopiazen ez ezik istorioak asmatzen hasi nintzen. Hasieran komiketako pertsonaiak baliatzen nituen. Ondoren, neureak sortu nituen, eta eguneroko istorioak kontatzen nituen komiki bidez. Lagunei erakutsi eta barre egiten genuen. Haurren mundua zen. Sei-zazpi urterekin, berriz, egindako komiki orriak margotu eta grapatu edo josi egiten nituela akordatzen naiz.

Hortxe zure lehenengo albumak!

Album txikiak, motel! Hiru-lau orri besterik ez, eskolako lagunen artean ikusteko.

Gaztetxo zinenean, Erretereriako institutuan zaitugu, bertako aldzkarian parte hartzen.

Hamabost urte eta, hura beste gauza bat zen. Beste mentalitate bat genuen. *Mortadelo* utzi eta *Papus*, *Por favor*, *El Jueves* eta horiek irakurtzen genituen, eta antzeko zerbait egin nahi genuen guk ere. Aldzkariak *Ikuslaria* zuen izena, baina "Ikus" esaten genion, eta marrazkiak, artikulua, elkarrizketak, txisteak eta gainerakoak egiten

genituen. Maskota, berriz, hontza bat genuen. Sei, zazpi, zortzi bat lagun ginen aldzkari hartan. Kurtsoan hiruzpalau ale publikatzen genituen. Oso ondo pasatzen genuen. Iluntze pare batean egiten genuen errebista. Artikuluak makinaz jotzen genituen; marrazkiak eskuz, jakina. Aldzkaria egin eta Bilbora bidaltzen genuen, fotokopiak egitera. Handik bueltan ekartzen ziguten, grapatu eta institutuan saltzen genituen. Tirada guztia saltzen genuen. Berrehun bat ale edo.

Gaur egungo komiki asko baino gehiago. Agian bai.

Zer izan da koadrila alegera hartaz?

Neuk bakarrik segitu dut marrazki munduan.

Nortasun agiria

Jose Anjel Lopetegi Brit, *Lope* (Lezo, 1962). Brit zen txikitana. "XV. edo XVI. mendean galeoi bat hondoratu omen zen Orioko kostaldean. Bakarra irten omen zen bizirik, Brit bat, irlandarra. Anjel Lertxundik ere Brit du laugarren deitura". Joxan izan zen lagunartean. Institutuan, Lope. "Berasategi *Berasa* izan zen bezala". Kate handia osatzen dute Loperen marrazkiek, gurean ez ezik, baita erbestean ere: *Ipurbeltzeko Gorka*, *Kipe*, *Bai Noski!*... Planeta Agostinirentzat Cels Piñolen gidoiekin egindako *Fanhunter Animated Series* komikia. Arriortua pertsonaia, Antton Duesoren gidoiekin *El Jueves* astekariarentzat. Txirri, Mirri eta Txirribitonen komikiak Joxean Muñozen gidoiekin. Eta *Gabai*, eta *Pirata*ren albumak... Eta animazio munduko lanak: *Kalabaza tripontzia*, *Flannery eta bere astakiloak*, *Txirrita*, *Lazkao Txiki*, *Ahmed*. *Alhambra*ko *Printzea*, *Alhambra*ko *giltza*, *Karramarro uhartea* (Espainiako Goya saria). Eta Mamuak ikuskaria. Eta... Aurten, Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren astean, beraren lanak erakutsiko dituzte, Rakel Alzaterenekin batera.



Handik lasterrera, erabakia hartu zenuen: marrazkilaria izango zinen!

Erabakia... Zazpi-zortzi bat urte nituenetik hartua neukan erabaki hori. Nik ez nuen dudarik: marrazkilaria izan nahi nuen. Marrazkilaria baino gehiago, komikigilea. Oso txikitatik nekien hori. Aitak esaten zidan, zaletasuna nuen, delineaizale edo arkitekto ikasteko. Nik, berriz, komikigile izan nahi nuen, ez besterik.

Aitaren erantzuna?

Segitzeko bide hartatik, baina ikasketak ez uzteko. Zergatik ez dakidala, nire adinari zegokiona baino urte bat aurrerago ari nintzen institutuan. Kaskoan sartuta neukan komikigile izan nahi nuela. Aitarekin hitz egin eta urtebete hartzeko esan zidan. "Ea zer lortzen duzun. Ezer lortzen ez baduzu, segi ikasketekin. Azken finean, marrazten ere segi dezakezu, hobbyztat".

Garaitu horretan, *Ipurbeltz* argitaratzen hasi zen Erein argitaletxea.

1977an hasi ziren *Ipurbeltz* argitaratzen. Ni 78an Ereinera joan nintzen. Han ziren Julen Lizundia eta Olatz Soraluze. Nire marrazki batzuk erakutsi eta Julenek esan zuena: "Ez dago gaizki. Pare bat marrazki sartuko ditugu aldizkarian". Hura izugarria izan zen niretzat. Nire lanak kioskoan ikustea! 2.000 pezeta ordainduko zidatela orrialde bakoitza agindu zidan Julenek. Niretzat, hilean lau mila pezeta gauza handia zen. Nire gastuetarako lain baneukan, behintzat! Horrela hasi nintzen.

Ez dakit zein izan zen zure lehenengo pertsonaia. Kiperen aurrekorik ez dakit izan zenik.

Bai. Gorka, mutiko bat eta Pinpoil eta amona Kurrixka, Pako Sagarzazuren gidoiekin. Baina segituan hasi nintzen Kiperekin. Hogeita hamar urte inguru egin ditut horrekin. Lapurra aukeratu nuen, baina ez dakit oso ondo zergatik. Beharbada Bruguera argitaletxeko komiketako pertsonaiak horrelakoak zirelako. Lapurra, iturgina... Zerbait behar du.

Gabai

"Oso lan sendoa izan zen *Gabai*, oso dokumentatua. Gidoiak Rafa Castellanok egin zituen. Nik uste gauza asko, gehiegi, zegoela komiki haietan, gaur egun ikusita. Berez, umeentzako zen, baina umeek ez ulertzeko moduko produktua gertatu zen azkenean. Marrazki aldetik ere, berdin esango nuke. Bineta asko ziren, eta bineta bakoitzean ere, marrazki asko. Oso kargatua zegoen dena. Pertsonaia asko, dekoratu asko... Irakurtzen hasi eta atzeraka eragiten zuen. Ni egileetakoa izan nintzen, bai. Varela, Sestelo, Landa, Nazabal eta laurok izan ginen marrazkilaririk. Hurrena, baita Gaston eta besteren bat ere. Esan dudana, oso lan trinkoa izan zen, irakurgaitza, nik uste".

Hogeitaka urte egin zituen Kipek, ezkutatu aurretik. Nekatu egin nintzen. Urte pare bat ibili nintzen, uztekoan. Azkenean, ez nekien zer egin, istorio berbera errepikatzen hasita nengoan. "Utzi egingo dut. Badakit bost urtera berriz hartuko dudala!". Izan ere, batzuetan horixe egiten dut. Hasi, utzi, berriz hartu, utzi...

Bai Noski!

Horrek hartu zion txanda Kiperi. Bai Noski, alegia. *Tio vivo* izeneko Espainiako komikian, edo *Pulgariton*... bazen pertsonaia, "Angel sí señor" izeneko. Eta horixe esaten zuen beti: "¡Sí señor!" (Bai jauna!). Nik gauza bera egin nahi izan nuen. Horratx Bai Noski!

Bai, noski. Eta nola heldu ohi da estiloa?

Pixka bat denetatik kopiatuz. Batetik, eskua kopiatuko duzu. Bestetik, adierazpidea. Hirugarrenetik, dekoratua. Azkenean, estiloa entsalada bat da, hortik sortzen da norberaren estiloa. Dena dela, autore batzuk oso maiteak nituen. Bat, batez ere, belgikar bat, Franquin. Hura niretzat zen...

Jainkoa.

Horixe, Jainkoa! Hain Jainkoa ere, hogeitau urte nituela Belgikara joan nintzen, bera ezagutze- ra. Ez nuen lortu. Beste zenbait marrazkilaria ezagutu nituen, *Spirow* aldizkariakoak, baina Franquin ez. Ordurako ingresatuta zegoen, depresioak jota eta nahiko gaizki. Ez nuen ezagutzea lortu, harekin hitz egitea, baina haren marrazki orijinalak bai, ikusi nituen. Eta, sine-tsi gero!, oraindik, Franquin erreferentea da European. Dudarik gabe. Hara, European, Franquin eta Herge dira erreferenteak. Bai garai hartan eta bai gaur egun ere.

Zer zuen, bada, Franquinek?

Lehenengo, marrazkia. Izan ere, komikia begietatik sartzen da. Lehenengo, irudia da; gero, gidoia. Nire ustez, Franquin zen marrazkilaririk onena. Edozein gauza marrazteko erraztasuna zuen. Baita gidoi onak egiteko ere.

Zer du Jose Anjel Lopetegi *Lopek*?

Ez dakit bada... Diotenez, marrazki aldetik karakterra omen du nire lanak. Oso marrazki pertsonala omen da. Batzuen iritzi, nire estilo oso latza da. Horixe esaten didate, behintzat. Gidoi aldetik, berriz, ez dakit zer daukaten nire komikiek. Ni istorio bat kontatzen hasten naiz, kontatzen segitu, eta kito: ez dut jakiten non bukatuko dudana.

Zure marrazteko era modernoa dela diote.

Bai, hala diote. Baliteke. Nik ez dut uste modernoa denik, baina tira.

Hogeita hamar urte inguru egin zenituen Kiperekin. Sekula ez duzu haren albumik argitaratu. Askoz denbora gutxiagoan, Pirata pertsonaiaren hiru album dituzu kalean...

Bai, oso arraroa da hori. Albumak saltzeko, dirua irabazteko, edo gastuak enpasteko, bi mila aletik gora saldu behar dituzu, eta hori hemen ez da saltzen. *Mortadelo* batek bai, salduko ditu, eta *Asterix* batek ere bai. Horiak, hamar mila ale, igual. Baina gainerakoan, horrelako salmentarik ez du hemengo produktu batek. Esango dizut: hemen albumak ez dira saltzen. Bertakokak, behintzat, hemen egindako produktuak, oso gutxi. Zer saltzen den? Japoniar komikia, hau da, manga. Hori, eta super heroiak. Spiderman eta beste. Planeta argitaletxeak, adibidez, Spidermanen eskubideak erosi eta bost mila ale salduko ditu Espainian. Frantzian, gutxien saltzen den komikiak hogeita hamar mila ale ere salduko ditu. Beste mundu bat da.

Kontsumitzeko ohiturarik ez dugu. Ez dugu. Komikiari dagokionez, Frantzia da Meka.

Denbora asko ez dela Euskal Herriko komikigileei buruzko erakusketak izan da Gasteizen: "30x30. Gure komikiaren tamaina (1976-2006)". Hainbat dira sortzaileak...

Marrazkilariak bai, asko dira, baina hortik bizi direnak oso gutxi. Oso gutxi. Komikitik bizitzea nekeza da, oso zaila.

Zu bizi zara. Komikia, ilustrazioa, marrazki bizidunak... Denetarik eginez, eta hortxe-hortxe. Oraintxe garai hobeak, oraintxe latzagoak. Oso zaila da.

Marrazki bizidunetan ere jarduna zara. Ez zara animazio mundura iritsi berria...

Juanba Berasategik deitu zidanean hasi nintzen, *Kalabaza tripontzia* egiteko, 1982an. *Ipurbeltzen* ikusi zituen nire marrazkiak. Eta deitu.

1982an, zuk hogeita hamar urte besterik ez zenituen. Juanba Pasai Donibanekoa da eta ni Lezokoa, beraz, lan egiteko, taldea osatzeko askoz errazago zen bata bestearengandik hurrean bizitzea. Juanba ez ezik, Luis Goia eta Koldo Izagirre zeuden taldean. Jaizkibel produkzio

Garmountain

"Akordatzen naiz behin afaltzera joan ginela Jaizkibelekoak, sagardotegira. Hantxe ari ginen, tente, eta baten batek esan zuen, 'orain amerikarren batek ikusiko bagintu, hemen, tente, jaten!'. Hortik hasi ginen, txantxetan: amerikarra, euskal jatorria... Juanba, Koldo, Varela... ginen han, eta handik sortu zen Walter Garmountain. Varela eta biok pertsonaia hura egiten hasi ginen ARGIAren TXT komiki gehigarrian. Komikia desagertu zenean, baita gure pertsonaia ere. Handik urte batzuetara berriz ikusi nuen, eta lantzeko asmoa hartu nuen: landu, garatu, koloreztatu eta ARGIAra bidali nuen. Hasieran, baietz, argitaratuko zutela. Gero, ez zutela aurrekonturik. Azkenean, hamahiru bat atal argitaratu zituzten. Eta kito... Garmountain, telesail bat egiteko moduko pertsonaia dela uste dut. Ez marrazki bizidunetako, pertsonaia errealekin egitekoa baizik".

etxean. Gainera, Jon Etxebeste, beste marrazkilari bat, soldadutzen zegoena; Espinosa, dekoratuak egiten zituena, eta ni neu. Nire atzetik, eta nire bitartez, *Ipurbeltzeko* Pedro Sestelo eta Carlos Varela ere taldean sartu ziren. Horiexek ginen taldean.

Salto galanta, komiki egitetik animazio egitera... Bai, handia. Diru aldetik ere bai. Soldata genuen! Hiru urte egon ginen *Kalabaza tripontzia* egiten. Gero, beste proiektu bat egin genuen: *Balearenak*. Ondoren, *Gabai* egin nuen beste zenbait lagunekin; bost urte eman genituen *Gabai* egiten. Nik zera esan ohi dut, marrazki bizidunetan egin nuela eskua, landu. Han ikasi nuen marrazten. Gauza bat da bineta bat egitea, han edozein pertsonaia sartu eta aurrera. Marrazki bizidunetan berriz, pertsonaiari buelta guztiak eman behar dizkiozu, goitik eta behetik begiratzen diozu, anatomia ezagutzen hasten zara. Horrela egiten duzu eskua. Marrazten ikasteko ariketa paregabea da marrazki bizidunetarako egitea.

Urteak dira Juanba Berasategi elkarrizketazera joan nintzela. *Ahmed, Alhambra Printzea* film ederra zen aitzakia. Han zinen zu, lanean...

Bai, film horretan lan egin nuen eta baita Ahmeden bigarren lanean ere, *Alhambra gilitza*-n. Haietan animazio lana egin nuen. Oso lan mekanikoa. Hasieran ondo, baina gero nekagarria da zeharo, eta guztiz inpersonala.

Ondorioa, aldiz, ikusgarria. Bai. Baina hori ez da, besterik gabe, marrazkilariaren meritua. Hor dira margolaria, kamera... Gauza asko. Dena dela, nik nahiago dut komikia. Nireago da, pertsonalago. Gidoia, marrazkia, kolorea... nirea da hasi eta buka.

Filmen "story board"-a (filmeko eszenak iruditan deskribatzea) ere egin izan duzu. Luzemetraian story board-a da oinarria. Edozein film egiten hasi behar eta amerikarrek lehenengo-lehenengo story boarda egiten dute. Batez ere akziozko eszenak egin behar direnean. Nire ustez, hor dago filmaren bihotza. Efektu bereziak eta beste, gehigarriak dira. Nik Juanba eta Koldo Izagirrekin ikasi nuen horretan. Gogoratzten naiz lehenengo story boarda Koldo Izagiri-



- Jose Anjel Lopetegui

rrerekin egin nuela. Telesail bat izan zen, 85ean ETBn emititu zutena: *Flannery eta bere astakiloak*. Zer gauza polit, Flannery! Bernardo Atxagaren gidoia...

Juan Carlos Perezen musika... Pertsonaien diseinua neuk egin nuen. Story boardak, Carlos Varela eta bion artean. Koldo Izagirre Jaizkibelgo zuzendaritzan zegoen. Produktore lanetan, Luis Goia genuen. Gogoan dut nola ibiltzen ginen Carlos Varela, Koldo eta hirurok. Koldok azaltzen zizkigun nozioak, plano bat hemen, kontraplano bat han...

Oso proiektu on eta sendotan hartu duzu parte, baina arloan lan egiten ez dutenez oraindik ezezaguna da Jose Anjel Lopetegui. Onenean, Kipe eta Pirata ezagutuko ditu zaleak, baina ez joan deneko hogeita hamar urtean egin duzun lan interesgarri eta kalitateko hori.

Normala ere bada. Film baten atzean hainbat langile dago. Kredituak hainbat dira. Jendeak ez du ikusten "Story boarda: Jose Anjel Lopetegui". Hasteko, jendea ez da kredituak irakurtzen geratzen. Martxa egiten du. Ez du ikusten zeinek egin duen story boarda edo dekoratuak edo dena delakoa. Marrazki bizidunetan, zuzendaria nabarmentzen da. Beharbada, onenean, gidoilaria, musikaria... Baina zuzendaria, batez ere. Komikia dela eta, berriz, esan dizut: hemen ez dago girorik. Oso komiki giro txikia dago Euskal Herrian. Hemen, *Ipurbeltz* eta *Xabiroi* ditugu. *Ipurbeltz*, hileru ateratzen da. *Xabiroi*, lau hilabetetik behin. Baina jendea ez zaizkio aldizkariok interesatzen. Hori ikusten dut etxean. Horixe da nire semearen kasua. Garai batean, aldiz, bai: *Asterix*, *Mortadelo y Filemón*... Gaur egun, galdu egin da aldizkariak etxean jasotzeko ohitura. Edo ez da behin ere izan. Kioskoetan, aldiz, ez da komikirik ikusten. Espainiako Estatuan bazen aldizkari bat, gazteentzako, oso ona. *Mister K* zuen izena eta *El Jueves* ateratzen zuen. Hor ere argitaratzen nuen lanik. Hamar mila ale inguru saltzen omen zituzten; bada, itxi egin zuten. Aldizkariak ehun orri zituen, eta luxuzko kolaboratzaileak. *Spirou* ren antzeko aldizkaria zen, hobe ere bazela esango nuke, eta argitaratzeari utzi! Hamar mila ale argitaratzen zituela! *El Jueves*-en antzekoa, baina neska-mutikoentzako. Hiru urte, eta itxi! Hori da hemen dugun panorama.

Animazio film luzea duzu eskuartean, eta gaitz erdi...

Bai. Juanbarekin naiz berriz ere. Izan ere, Juanbarekin dudana harremana Kiperekin dudana antzekoa da. Hartu, utzi, atzera hartu... Luze-metraia prestatzen ari gara: *Barriola*, *San Adriango azeria*. Koldoren gidoiarekin. Urte eta erdiko lana badugu hor. Eta baliteke Txirri, Mirri eta Txiribitonekin ere beste telesail bat egitea.

AZKEN HITZA

Luis Goia

"Luis Goia? Buf!... Oso harreman estua izan nuen Luis Goiarekin. Berarekin hasi nintzen marrazki bizidunetan. Biak ginen Lezokoak. Tornulari edo zen. Juanbak lanerako hots egin zionean, lanbidea utzi eta marrazki bizidunetan hasi zen. Baina, haren lehenengo lanak mahai bat egitea, kristalak jartzea eta horrelakoak izan ziren: zurgintza. Gero, produkzio lanetara igaro zen. Goiak 55 urte zituen hil zenean. Munduan hobekien aprobetxatutako berrogeita hamabost urteak izango ziren. Oso animatua zen, baikorra, bitala, oso eskuzabala eta hori bai, beti umoretsu... Energia handia zuen, guztiei kutsatzen ziena. Luis Goia, zinema munduan erreferente bat! *Kalabaza Tripontzia*, *Flannery*, *Ke arteko egunak*, Koldo Izagirrekin. Bere kontura ere dozena erdi film egin zuen. Eta beti oso animoso. Oso laguna. Oso laguna handia".

Txirri, Mirri eta Txiribiton... Shin Chani atsedean emango diote. Eta gurasooi ere bai!

Dena da manga! Besterik ez balego bezala! Manga oso merke da erosteko eta ahoko zulotik sartzen digute. *Shin Chan* gustatzen zait, baina, oraintxe, ez daukat batere marrazki bizidunik ikusteko gogorik. Nazkatuta bukatu nuen Gorka umea zela ikusitako pilarekin. Ez dakit zenbat marrazki bizidun ikusi nituen, hura matraka! *Pokémon* eta. A ze ergelkeriak! Ulertu ere ez nuen egiten. Nazka-nazka eginda bukatu nuen sasoi batean. Orain, berriz hasi naiz ikusten.

Simpsondarrak eta.

Jeniala da hori. Hala ere, ez dakit nola duen hainbesteko arrakasta. Berez, ez da umeentzat helduentzat baizik. Sekulako taldea du lanean, eta aurrekontu ikaragarria! Hemen ezinezkoa da horrelakorik egitea.

Aizu, eta ez al da kontraesana Juanba Berasategik Abadia saria jasotzea, bizkarrean zapladak eta, "hi bai ona!", baina egin nahi duen lana egin ezinik. Ez da gezurra. Bi urte eman ditu lana ezin inguratuta. Oraingo lan luzea, *Barriola*, egingo du urte eta erdian eta, bitartean, ate joka jardungo du batean eta bestean proiektuak erakusten, ea!

44 urte besterik ez dituzu, eta a zer curriculum. Zer zenuke gutizia?

Nahiko nekatuta nago marrazkiak egiten. Txikitan hasi nintzen, hobby zen garaietan, baina orain besterik da... Nire asmoa *Pirata* rekin segitzea da, nire lana da eta pertsonala. Ea zorte pixka bat dudana eta Saurek nire lanaren eskubideak Europan saltzen dituen, hainbat lekutan interesaturik daude eta. Gainerakoan, ea Saurek *Pirata* beraren laugarren albuma ateratzeko kemena duen, eta hortik atzera, askoz gehiagorik ez.

Eta Garmountain, pertsonaia errealekin.

Bai, egin dezatela -nahi badute, jakina-, baina ni tartean sartu gabe. Lan gehiago ez, faborez. Nahikoa dut. Lotoa irabazi eta bizi egin nahi-ko nuke. n

Pirata

"Nire semea da, Gorka, zortzi urte zituenean. Nire bizipenak ere tartekatzen ditut, jakina, baina Pirataren istorio batzuk Gorkaren hitzen transkripzio hutsa dira, ehuneko ehuneko. *Pirata* egiten hasi nintzenean banekien zer egin nahi nuen. Bartzelonara jo nuen lehenengo, Norma argitaletxearen *Dibus* aldizkariara, marrazten ikasteko artikuluak eta bestelakoak argitaratzen dituen. Haiek oso konforme. 'Oso ondo, oso modernoa'. Urtebetez jardun nuen han. Gero, utzi egin nuen beste aldi batez, Saure-ri bidali nion arte. Eta hark albuma argitaratu. *Pirata* ren hiru album ditu argitaratuak".